



KARMEL

Irugarren Aroa

128'gn. zenbakia

4-1971

ARGIA ZABALDU

Ona ta txarra nasotzen dira munduan; indar bi gertatu behar dituzte nairik. Bikeltzen dira, baina ez illuna, lurra ta zerua, gaitortzen ta mundua, gorputza ta arima, gaitortzen ta birtute; laburtzen ta txarra.

Aspaldi baten, milloika urte dituztena, Jainkoak egin zituen gauza guztiak, eta gaur be, Berak iraunazoten ditu bere indar-arnasaz. Gauzak ez dira Jainko, baiña Berak egiñak bai. Ta indar bi dabilten gauza artean, nor geiagoka. Ez doguz begiakaz ikusten indar biok, baiña sentidu, asmatu bai. «Aragia —diño Paul apostoluak— espi-rituaren aurka dabil; espi-rituaren

aurka, ostera, aragiaren aurka; alkarren etsai dira, ta orregaitik, ezin dozue egin nai dozuenik» (Gal. V, 17). Zer biren burruka etzeden bakoa.

Galtza, okerra ta ezaintasuna berez ez dira ezer osorik. Onak igaro bear dauan bideari begitzen dautso galtzak. Okerra ez da besterik egiñantza dagigun bide-arloa baiño. Ezaintasuna, barriz, bide erdian dago edertasunari begira. Oneik irurok goitu, menperatu bear dira. Ez dago, alan be, ideiarik, pentsamenturik erro-errotik makur edo oker danik; ezta gizonik be, guztiz zapuztutea merezi dauanik.